



**3 GABONAK**  
**Errege Kabalgata hobetzeko hitzarmena**

Lasarte-Oriako Udalak eta Megaba elkarteak lan hitzarmena sinatu zuten ostegunean. Honen bitartez, karrozak eta jantziak hobetuko dituzte eta Endika Amilibia zenaren omenezko izarra moldatuko dute. Honetaz gain, Brigitarren komentura Erregeei eskutitza ematera hurbiltzen diren haurrek benetako idi bat ikusteko aukera izango dute jaiotzan. Era berean, Errege Magoen kartela erabakitzeke marrazki lehiaketa bihar martxan jarriko dela jakitera eman zuten.



Eguraldia lagun, atzo eguerdian, ibilbideko tabernatan herritar ugari ikusi zen. Ibilbideko pintxoak eta bestelakoak eskatzen zituzten herritarrek.

**4 OMENALDIA**  
**Xirimiri elkartearen etorkizunera begira**

Madrilgo Entzutegi Nazionalak ezarritako itxiera zigorrari erantzun eta elkarteak etorkizuna duela jakitera emateko, Xirimiri elkartearen kide eta lagunek omenaldi xume bat egin zuten larunbatean. Urtea hauetan elkarteak antolatu dituen ekintzen argazki erakusketa, bazkaria, Porrotxen emanaldia, euskal kantuek eta mus txapelketa izan ziren. Giro ederra izan zen Xirimiri elkartearen.



Ostiralean hasi zen III. Pintxo ibilbidea Lasarte-Orian. Atzo eguerdira arte herriko hamaika tabernekin ibilbideko bereziki prestatutako pintxo bereziak eskaini dituzte. Herritarrek haien gustukoei eman dizkiete puntuak.

Astebururuan Lasarte-Oriako III. Pintxo Ibilbidea ospatu da herrian. Aterpea Merkatarikoen elkarteak eta Udalak antolatutako ekimenak, herriko tabernetan dinamizatzea du helburu.

Arkupe, Buenetxea, Izurde, Yolanda, Trumoi, Avenida, Sancho, Lasarte, Viña del mar, Guria eta Ilargi tabernetara herritar hurbildu ziren atzo eguerdian batez ere pintxo gozoak dastatzera.

Lehenengo tabernan eskuorri bat jaso eta pintxo bakoitzaren puntuaketa idatzi behar zuten.

Tabernekin, berriz, zigilua jartzen zieten eskuorrietan. Izan ere, zigilu denak bilduta-

ko eskuorriak 100 euroko zozketan sartzen baitziren.

**Bi sari**

Era honetara, taberna guztietan jasotako eskuorrietako puntuak zenbatuz, herritarren sariaren irabazlea zein den jakingo da.

Eta honetaz gain, gogoratu 'Martin Berasategi' saria ere eskuratuko duela tabernetako batek.

Aurkezpen egunean Martin Berasategi sukaldariak pintxo guztiak probatu zituen. Hautua zaila izango zela aurreratu zuen orduan.

**Sariak jakitera eman**

Ibilbidean parte hartu duten

# Pintxoez gozatzeko asteburua

## Aste honetan zehar jakingo dira III. Pintxo ibilbideko sariak



Hamaika tabernetan, pintxo bereziak zituzten. Irudi hauetan dauden pintxoaren antzekoak.

tabernekin aste honetan zehar jakingo dituzte taberna sari-tuen izenak.

Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak adierazi

duenez, sariaren banaketa ekitaldia egingo da, baina eguna zehazteke dago oraindik, izan ere, Martin Berasategi egotea aurreikusten baita.

**ELECTRICIDAD ARREGUI**  
 www.electricidadarregui.com

**Etorri gure eskaintzak ezagutzera eta baliatu gure tratu profesional eta pertsonalizatuaz**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel./Faxa: 943 37 25 21

**Josue Igeltseritza**

**Igeltseritza orokorra**

- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa

606 37 21 05  
 Atallu pol. atallu, 28 USURBIL  
 josueigeltseritza@euskalnet.net



## KULTURA

# Barre algarak 'Komedia espaniar bat' lanarekin

## Ostiralean, Brigitarren komentuko organoaren mendeurrena ospatuko da

Danak Kide elkartaren eskutik bi aste hauetan kultura ekitaldiak gozatzeko aukera dago. Batetik, ostegunean, antzerki topaketetan Teatro Ikerketaren "Una comedia española" antzezlanak ikusi ahal izan zen. Bestetik, hurrengo ostiralean, Musika Topaketen barruan, organo eta ahotsa uztartzen dituen kontzertu berezia izango da.

**E**statuko familia baten bizitzan murgildu ziren ostegunean Manuel Lekuona kultur etxeko ikusleak Donostiako Antzerki Ikerketaren eskutik.

Yasmina Rezaren 'Una comedia española' antzezlanak moldatu eta oholtzara ekarri zuen antzerki taldeak. Maitasuna, babesa, bakardadea, lehia eta konfiantza ditu hizpide; beti ere, komediaren bitartez joratuak.

Antzerkiari, aktoreei eta ikusleei buruzko gogoetak ere xertatzen dituzte.

Antzezlanarekin ondo pasatzeko aukera egon zen.

Era honetara, Donostiako Antzerki Ikerketaren taldeak Danak Kide elkartarekin bate-

ra antolatutako antzerki topaketei amaiera eman zien.

### Musika Topaketak

Bestalde, abenduaren 4an, ostiralean, Danak Kide elkarteak antolatzen dituen XI. Musika Topaketen saio berria izango da.

Honetan Brigitarren komentuko organoa izango da protagonistetako bat, izan ere, 100 urte betetzen baititu.

Haizea Muñoz sopranoa eta Ana Belen Garcia organistak beraz, emanaldi berezia eskainiko dute ostiralean arratsaldeko 19:30etik aurrera Ama Brigitarren komentuko kaperan.

Emanaldian ahotsa eta organoaz batera edo organo-



Familia baten egunerokotasuneko gertaerak islatu zituen Donostiako Teatro Ikerketa taldeak 'Komedia espaniar bat' lanean.

ren doinuez soilik gozatzeko aukera izango da.

Bach, Foure, Haendel edo Purcell egile ezagunen doinuak eskainiko dituzte, baita euskal konpositoreenak ere, hala nola, Guridi eta Aita Donostia.

### Organoa

Era honetara, Musika Topake-

tek Ama Brigitarren komentuko organoaren urteurren berezia ospatuko dute.

Organoa Azpeitiko 'Vd. de Amezua, Argonés, F. Eleizagarray y Cia.' enpresak egin zuen Brigitarrek berak eskatuta.

1915eko urtarrilaren 26an inauguratu zen eta bertan izan ziren Julio Valdes presbi-

teroa edo Jose Olaizola Donostiako Santa Maria elizako organista ere.

1991ean, Alejandro Usabiagak zaharberitu zuen.

Ana Belen Garciaen eskutan eta Haizea Muñozen aho-tsarekin nahastuaz, bere doinua entzun ahal da ostiraleko hitzorduan.



## Gazteak ere kirola euskaraz

**L**arunbata goizean, Lasarte-Oriako LH eta DBHko gazteek zunba saio bereziaz gozatzeko aukera izan zuten kiroldegian.

Abenduaren 3an, ostegunean, euskararen eguna dela gazteei ohartarazteko kirol jarduna euskara hutsean egin

zen. Horretarako, saioa girotu zuten doinuak eta argibideak euskaraz izan ziren.

Gaztetxoek adi jarraitu dituzte jarraipenak eta ederki egin dute dantza Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Esne Beltza edo euskal kanten bertsoak jarraituz.

## Zaborraren kudeaketa hizpide

**B**AI ekimenak amaiera eman zion ostegunean II. edizioari. Hirugarren hitzaldi honetan gonbidatua Javier Ansorena Miner izan zen, 2011 arte Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zerbitzuetako burua izandakoa.

Ansorenak gakoa ahalik eta zabor gutxien sortzea dela azpimarratu zuen hitzaldian.

Alderantzizko piramide bat osatu zuen ere, goian prebentzioa egonik. Bigarren pisuan birziklateka jarri zuen, hau da, sortutako hondakin gehienak berrerabiltzearen alde. Errausketa eta isurtzea azken koskan egongo lirite-



Javier Ansorena Minerrek zaborraren kudeaketari buruzko gakoak eskaini zituen.


ke, ekidiezina denerako alternatiba gisa.

Era honetara, BAI plataformak aurtengo edizioari agur

esan dio. Hiru mintegi antolatu dituzte guztira: elkarbizitzari, abertzaletasunari eta zaborraren kudeaketari buruzkoak.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,  
Iñigo Gonzalez.

**txintxarri@txintxarri.info**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.com**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maider Seguro,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz



## MEGABA



Lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten ostegunean Jesus Zaballos alkateak eta Megaba elkartearen lehendakari Gemma Tejerok.

## Erregeen kabalgata hobetuko du Megaba elkarteak

### Berritu egingo ditu karrozak eta jantziak

**Hilabete pasatxo falta da oraindik hiru errege magoak Lasarte-Oriara opariak banatzera etortzeko, baina Megabako kideak buru-belarri ari dira jada ongiatorri ekitaldia prestatzen. Aldaketak iragarri ditu elkarteak aurtengo kabalgatarako; karrozak eta jantziak hobetuko dituzte.**

## TXINTXARRI

Hemendik hilabete eta egun batzuetara iritsiko dira herrira Meltxor, Gaspar eta Baltasar magoak. Denbora falta da horretarako, baina Megaba elkarteak jo eta su ari dira lanean jada ongiatorria prestatzen. Kideek berrikuntzak iragarri zituzten osteguneko prentsaurrekoan; karrozak eta jantziak hobetuko dituzte.

Horiez gain, Endika Amilibia zenaren omenezko izarra

moldatu egingo dutela aurreratu zuten osteguneko agerraldian. Era berean, benetako idi bat ikusi ahalko dute herritarrek errege bezperan Brigitarren komentuan jarriko den jaiotzan. Errege kabalgatan irteten direnek indarrak berri-tuko dituzte gero ogitartekoak janez; Jalgune elkartearen gurasoek prestatuko dituzte.

Bestalde, prentsaurrekoan jakinarazi zuten orain arteko lehendakari Txus Alonsok utzi egingo duela kargua; Gemma Tejerok hartuko du lekukoa.

## MARRAZKI LEHIAKETA

Urtero moduan, erregeen etorrera dela-eta marrazki lehiaketa antolatu du Megabak. Abenduaren 1etik 18ra bitartean egin beharko dituzte marrazkiak gaztetxoek, eta kultur etxean jarriko duten postontzira bota. 'Ekialde Hurbileko errege magoak' izango da gaia, elkartearen kideek adierazi zuten bezala.

12 urtera bitarteko gaztetxoek hartu dezakete parte lehiaketan, hiru kategoriatan: 3 eta 6 urte, 7 eta 9 urte edo 10 eta 12 bitartekoenean. Adin-tarte bakoitzeko marrazkilarik bat sarituko du elkarteak, eta gero hiru horietatik irabazlea hautatu. Azken horren lana datorren urteko kartelean azalduko da.

## UDALA

### Udalaren iragarkiak, webgunean soilik

Udaletxe sarreran zegoen iragarki-taula kentzea erabaki du Lasarte-Oriako Udalak. Haren jardueraren berri Interneten emango du gaurtik aurrera, erakundearen web orrialdean.

Iragarki-taula fisikoa kendu eta digitala eratzeko erabaki du Lasarte-Oriako Udalak. Beraz, Udalak kendu egin du udaletxe sarreran zegoen euskarria; jakinarazpen eta iragarpen denak erakundearen web orrialdean eskegiko ditu, horretarako sortu duen taula birtualean.

## ELKARTASUNA

### PSE-EEK jostailu bilketa solidarioa egingo du

Lasarte-Oriako PSE-EEK jostailu bilketa solidario bat egingo du gaur hasi eta abenduaren 11ra arte. Jostailu horiek behar gehien dituzten herritarrentzat izango dira.

Jostailu bilketa horretan ekarpenen bat egin nahi duen orok lehen aipatutako egunetan joan beharko du PSE-EEK Lasarte-Oriako duen egoitzara, arratsaldeko seietatik zortzietara bitartean. Bertan egongo dira talde sozialistako eta komite lokaleko kideak, jostailu bilketa hori egiten.

Bilketa horretan parte hartzen duten herritarrek boletoa jasoko dute, eta bizikleta baten zozketan sartuko dira. Gabonetako loteria sariko azken bi zenbaki berberak dituen boletorean jabea izango da irabazlea.

Jostailuak biltzen amaitu ostean, PSE-EEK Lasarte-Oriako Gobernuaren kanpoko erakunde bati emango dizkio, haiek herritarren artean banatu ditzaten jostailu horiek.

## LANAK

### Arrain-faunaren behatokia zaharberritu egingo da

Oriako Arrain-faunaren Behatoki Naturala zaharberrituko du Lasarte-Oriako Udalak. Ohar batean jakin arazi duenez, behatokia, azken urteotan abandonuzko egoeran zegoen eta urgentziazko zaharberritze baten premia zuen.

Lanak 11.422 euroan adjudikatu dira eta Excavaciones y Transportes Ateri enpresak emango ditu aurrera.

Esleitu berri den obrarekin, lasarteoriarrek berriro gozatu ahalko dute, hegaztiak eta arrainak behatzeko gune horretaz. Udalak adierazi duenez, paseatzaileek oso maitea duten lekua da.



## Argiztapen "hobea" Eguberrietan

Lasarte-Oriako aurten ere Eguberrietako argiak dizdizka izango dira kale, biribilgune eta hainbat udal eraikinetan.

Udalak eguberrietako argiztapenaren kontratazioa esleitu du, 18.186 euroko aurrekontuarekin.

Astigarragako Maykolux enpresa ari da dagoeneko lanean eta akordio batera iritsi da Aterpea Merkataritza elkartearekin gure herriko kaleak jaiegun horietan izan beharko duten argiztapena zehazteko.

Udalak adierazi duenez, adostutako aurrekontuari esker, gure herriko kale eta auzo gehiagotara eraman ahalko da argiztapen hori,



Geltoki kalean edo herriko beste puntu batzuetan dagoeneko jarrita daude argiak.

"bereziki sentigarriak diren egun horietan".

## Argiak piztea

Udalak jakitera eman duenez,

abenduaren 4ean 21:00etan argiak piztuko dira. Era honetara, Eguberrietako giroan murgilduko dira gure herriko kaleak.

## INAUTERIAK

### Inauterietako diru-laguntzen eskaera

Lasarte-Oriako Udalak 2016. urteko inauterietako dirulaguntza eskaerak abenduaren 9 eta 18a bitartean egin beharko dira Udalaren Erregistro Orokorrean.

Egoitza Lasarte-Oriako duen pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuak izan ahalko dira laguntzen onuradun. Inauterietako konpartsak edo otsailaren 4 eta 7 bitartean gartzaren jarduerak eta/edo programak diruz lagunduko dira.

Deialdi honi buruzko informazio gehiago azaroaren 16ko GAO-n dago eskuragarri.

## UDALBATZARRA

### Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko lanak egiteko kreditua handituko du Udalak

Lasarte-Oriako udal korporazioko kideak ezohiko udalbatzarran bildu ziren ostiralean, 2015eko kredituen aldaketan inguruko dossiera aztertu eta onartzeko.

Hasieran aurreikusitako proposamenaren aldaketak egin ditu Udalak. Argazki-kamera berri bat erosiko du, zaborteia ixteagatik San Marko mankomunitateari ordaintzeko diru-partida bat sartuko du eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko lanak burutzeko kreditua handituko du, aurrez finkatutako kopurua ez baita nahikoa lan denak egiteko. Onartua izan zen proposamena, 10 aldeko bozka eta 5 abstentziorekin.





Pello Añorgak kontatutako ipuinekin ederki gozatu zuten haurrek.



'9 mosaiko infinitu' antzezlanak emakumeen arteko harremanak erakutsi zituen.



Astezkenean giro zakarra zenez, herritar eta udal ordezkariak udaletxeko harreran osatu zuten puntu morea.

## Genero indarkeriaren aurka

### Makelur taldearen antzerkiak amaitu zituen ekintzak

**Astezkenean, azaroaren 25ean, genero indarkeriaren eguna izan zen. Gure herrian hainbat ekintza burutu dira aste honetan zehar jarrera hori gaitzetsi eta herritarrak gai honi buruz kontzientziatzeko.**

#### Erakusketa eta antzerkia

Bestalde, ostegunean azaroaren 17tik ikusgai izan zen 'Diruaren sexu izkutua' erakusketak itxi zituen bere ateak.

Ostiralean, berriz, Makelur sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroko interpretazio taldeak bereziki prestatutako '9 mosaiko infinitu' antzerkia eskaini zuen.

Honetan bederatzi emakumeren istorioak aurkeztu zituen antzerki taldeak.

Bakoitzak bere bizitzako arlo ezberdinak agerian utzi eta elkarbizitza eta haien arteko liskarrak ere erakutsi zituzten lanean. Umore beltz eta ironiaz betetako lana.

#### TXINTXARRI

**A**steazkeneko giroari aurre eginez, astezkenean udaletxeko harreran puntu morea osatu zen genero indarkeriaren aurkako egunean.

Herritarrak, udal ordezkari eta zinegotziak puxika moreak eskutan genero indarkeriaren aurka agertu ziren honen ikurra marraztuz. Puxi-

kekin jolasteko tartea ere izan zuten.

Ostean, herriko txikiek Pello Añorgaren eskutik ipuin kontaketa berezia izan zuten.

Haur liburutegia hurbildu ziren haurrak ipuin eta abestien bidez hainbat istorioetan murgildu ziren. Hala nola, Ttonttolapiko ezagutu eta pertsonaia honi laguntzeko aukera ere izan zuten etxeko txikienean.

## Donostiako Maratoian ere herritarrak lasterka

**A**tzo goizean Donostiako Maratoia izan zen. 40 kilometrotako proban 3.000 bat korrikalari izan ziren irteeran. Hiru kenyarrek osatu zuten podiuma gizonezkoen mailan, irabazlea Elisha Rotichek 2 ordu 13 minutu eta 56 segundo behar izan zituen ibilbidea betetzeko. Bigarren ia bost minutura, 2:18:28 Kennedy Lagat izan zen eta hirugarren, 18 segundora, Hosesa Kiprono.

Nesken mailan Matea Matosevic kroaziarra izan zen lehen helmugan, 2:45:24.

Gipuzkoako txapelketa ere egon zen jokoan eta Eduardo Gallegok eraman zuen urrea 2:29:51 korrika egin ostean.

Proba honetan 23 herritar ere izan ziren lehian eta

Xabier Carcedo Gonzalez izan zen lehena, 2 ordu 56 minutu eta 42 segundoko denborarekin.

Besteen denborak honako hauek izan dira: Aitor Otamendi Lizarazu, 2:57:21; Javier Olazagoitia Rodriguez, 2:58:26; Ricardo Marcos Martin, 3:03:17; Juan Mari Marcos Molina, 3:06:15; Miguel Angel Fernandez Prieto, 3:10:35; Jesus Osua Garcia, 3:14:36; Anabel Eleno Agustin, 3:17:28; David Gonzalez Corchuelo, 3:21:00; Tomax Arruti Aldalur, 3:22:01; Jose Ramon Mendizabal Garate, 3:23:26; Juan Mari Sarobe Gabirondo, 3:23:08; Emilio Hernandez Gonzalez, 3:25:22; Zigor Lekaroz Fernandez, 3:36:21; Igor Sevilla-

no Rodríguez, 3:40:22; Josu Riezu Arregi, 3:44:54; David Montejo Estevez, 3:50:57; Iraitz Pikabea Lopez, 3:54:58; Peio Fadrique Fadrique, 4:03:04; Garikoitz Urruzmendi Aldalur, 4:05:27; Oscar Jimenez Simon, 4:13:22; Mikel Ormazabal Garmendia 4:14:34 eta Arantxa Zapata Zapata, 4:31:48.

#### Maratoi erdia eta 10 km

Proba honetaz gain, 20 kilometro eta 10 kilometrotako probak ere izan ziren.

Maratoi erdiko proban 18 izan ziren herritarrak eta Raul Gomez Margallo izan zen azkarrena distantzia honetan. Ordu bat 11 minutu eta 19 segundotan egin zituen 20 kilometroak.



Atzo Maratoian parte hartu zuten herritarren taldeetako bat.

J. IPARRAGIRRE

10 kilometrotakoan, berriz, hamalau lasarteoriatar izan ziren helmugara iritsi

zirenak. Azkarrena, Rebeca Villanueva izan zen, 38:45 minutu lasterka egin ostean.





Porrotx pailazoaren emanaldian ederki gozatu zuten haur eta ez hain gazteek.

XIRIMIRI



Erakusketa, bazkaria, kantua, musa... omenaldian ekintza ezberdinak izan ziren.

## Itxaropenez aurrera begira

### Itxieraren mehatxupearan, omenaldi xumea Xirimiri-ri

**26 urte dira, Xirimiri elkarte bere ibilbidea hasi zuenetik. Milaka ekimen eta ekintza burutu dira bertan. Hau guztia gogora ekarri eta bizi duen mehatxuaren aurrean, etorkizunari itxaropentsu begiratzeko omenaldi txiki bat antolatu zen larunbatean.**

Xirimiri elkarteak omenaldi xumea jaso zuen larunbatean bere kide eta lagun eskutik. Elkartera hurbildu ziren haur, zein helduek hainbat ekintzetan parte hartu zuten eta atzera begirako bat egiteko aukera ere izan zen erakusketari esker.

Eguna, eguerdi aldera hasi zen. Xirimiri elkarte bertan antolatu zen erakusketa ikusteko aukera izan zuten hurbildu ziren guztiak.

Honetan elkarteak 26 urte hauetan antolatu dituen ekitaldi, hitzaldia, urteurren, ber-

tso-afaria, garagardo azoka edo kontzertuen argazkiak izan ziren ikusgai modu berezian. Izan ere, argazkiak paretan zintzilik egoteaz gain, sabaitik zintzilik zeuden kordatan baitzeuden itsatsiak.

#### Bazkal oste ederra

Ostean, ederki bazkaldu eta indarrak hartu zituzten arratsaldeko ekintzei aurre egiteko.

'Xirimiri Kantari' ekimenean, Jon Lasaren laguntzaz hainbat euskal doinu abestuz zituzten, hala nola, 'Txoriak

txori' edo 'Xalbadorren heriotza'.

Ahots kordak ederki dituztela erakutsi zuten elkartearen bilduak zeuden lagunek.

Etxeko txiki eta ez hain txikiak Porrotxen bihurrikeriez ere gozatu zuten eta mus txapelketa ere izan zen.

#### Oharra

Hau guztiaz gain, Xirimiri elkartearen lagunek honako hitza hauek helarazi nahi dizkiete herritarrei:

"Badira jada urte dezente Xirimiri gure herriko gunea bilakatu zela, bai bertan, baita Lasarte-Oriako kaleetan ere eraginez, ilusioa piztuz, kaleak koloreztatuz, formakuntza zabalduz, harremanak landuz... Gunea izan bai, baina herriak eraiki du dinamika bertan eta gaur egun bai

gunea eta baita dinamika ere eten egin nahi dute, isilarazi nahi gaituzte, etxeko ateei giltzarrapoa jarriz, betikoak dira betiko moduetan. Honen aurrean gure sustraietara begiradaxo bat botatzea erabaki dugu, indarrak hartzeko asmoz, urteetan egindako ekarpenetatik ikasteko asmoz, eta batez ere, Xirimiri-ri merezi duen omenaldia eskaintzeko asmoz, hamaika borroken espazio izan baita, beste herri

baten sinisten dugunon antolatzeko topalekua baita.

Borrokaz eraikitakoa... eraikiz borrokatuko dugu!"

#### Kuba

Bestalde, ostegunean, Xiri afari-merienden saio berria izan zen.

Honetan, Kubara egindako bidaia azaldu zuten hainbat herritarrek.

Ostean, afari-merienda gozoa dastatu zuten.

## Reggaeaz gozatzeko jaialdi paregabea

Larunbatean, 'Reggae Fever' izeneko irratsaioa sustatze aldera jaialdia izan zen Elebeltz Topagunean.

Goizeko ordu txikiak arte, reggae musika eta bere eratorriez gozatzeko aukera izan zuten Elebeltzera hurbildu

ziren pertsonak hainbat talde eta Djen eskutik.

Oholtzan hiru talde, Bilbotmatiks, Zartako-K eta Q Aren't Ones izan ziren eta diskoak jartzen, berriz, Sir Gorka eta herriko Naken Selektor DJak.

Aurretik, 18:00etatik 21:00etara, Elurtza tabernan reggae zaleek jaialdirako motorrak berotzeko aukera izan zuten.

Charlie Mondadientes eta Ritxi Skatalite DJek saio eskaini baitzuten.





**SANTA LUZIAKO MENU BEREZIA:**

Pipar berde eta barregorri lasagna  
 ...  
 Odolki, baratxuri fresko eta pinuaziz betetako krepa  
 ...  
 Txipiroiak tipulatan, bakailaoa pil-pilean, entrekota plantxan edo txerri masailak ardo beltzetan  
 ...  
 Etxeko tarten dastaketa, izozkiarekin  
 ...  
 Kafea eta etxeko edariak

Gaua ondo bukatzeko, likore edo Cava kopa bat oparituko diegu gure bezero guztiei

**GOIEGI**  
 Jatetxea - Restaurante

Santa Luzia dela eta, gau berezia antolatu dugu abenduaren 12an GOIEGIN.

Menu bereziaz gain, afalostean DANTZALDIA eskeiniko dugu goizalderarte.

Anima zaitetz, **GIROA ZIURTATUA** dago!

www.goiegi.com  
 Irubide bailara 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 14 04 / 943 37 11 78



## LABURRAK.-

## LOKEko judokek Euskadiko txapeldun bat eta bi domina Euskadiko txapelketan

LOKEko senior mailako Esteban Martinez, Asier Sagasti eta Josu Olmos judokek larunbatean Hernanin jokatu zen Euskadiko txapelketan parte hartu zuten eta hirurek eskuratu zuten dominaren bat. Martinezek urrezko domina eta Euskadiko txapeldun titulua eraman zituen etxera, Asier Sagastik zilarrezkoa eta Josu Olmosek, berriz, brontzezkoa.



Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez maila handiko txapelketa izan zen larunbatekoa. LOKEko judokek ez zuten huts egin eta ederki egin zuten borroka. Ipon politik egin zituztela ere aipatu digu entrenatzaileak.

Bestalde, taldeko kadete eta infantilak Zaragozako Tagoya kopan izan ziren atzo lehian. Aldizkariko edizioa itxi baino lehen ezin izan dugu emaitzarik eskuratu.

## Lasarte-Oriako I. San Silvestre lasterketan izena emateko epea zabalik dago

Familia giroan bapo afaldu eta 2016ari ongiatorria egin aurretik gosea egiteko aukera edukiko dute herritarrek, Lasarte-Oriako I. San Silvestre lasterketan parte hartuz. Abenduaren 31n jokatu da proba, 16:00etan. Interesa dutenek izena eman dezakete jada abenduaren 27ra bitartean, kirolprobak.com atarian. Korrikalariak 16 urte eduki beharko dituzte gutxienez, eta 5 euro ordaindu.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, korrikalariak bakarrik ez, Nordic Walking edo Ipar Martxa kirola egiten dutenek ere burutu ahaliko dute 6,2 kilometroko ibilbidea. Okendo plazan hasi eta bertan bukatuko da, herriko hainbat gune zeharkatu ostean.

Lasterketa 16:00etan hasiko bada ere, antolatzaileek gomen datzen dute ordu erdi lehenago joatea Okendora, lehenengo edizioa denez aurkezpen ekitaldi bat prestatzeko asmoa baitute.

## Emakumezko infantil mailako lau selekziok lagunartekoak jokatu dituzte Kiroldegian

Igandean, abenduaren 6an, eta astelehenean, abenduaren 7an, maila altuko saskibaloia ikusiko dute herritarrek kiroldegian. Euskadi, Galizia, Gaztela Leon eta Madrilgo selekzioek lagunartekoak jokatu dituzte euren artean, Espainiako Txapelketarako prestakuntza gisara. Euskadiko Saskibaloï Federazioak eta Ostadar SKTk antolatuta dute ekitaldia.

Euskadi eta Gaztela Leon izango dira igandean kantxara iriten lehenak. 10:15ean jokatu dute. 12:00etan Madrilek eta Galiziak jokatu dute, 15:45ean Euskadik eta Madrilek eta 18:00etan Gaztela Leonek eta Galiziak.

Astelehenean izango dira azkeneko bi partiduak: Euskadik eta Galiziak 10:15ean neurtuko dituzte indarrak eta 12:00etan Madrilek eta Gaztela Leonek.

## PILOTA.-

## Intza Ezker Ormako 2. mailako txapeldun

Intza kirol elkarteko 2. mailako senior bikoteak Ezker Hormako txapelketako finala irabazi zuten larunbatean, Zegaman. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak 22-15 menderatu zuten Azkoitiako bikotea.

Herritarrek ez ziren fabrikatzaileak. Bikoteek aurrez ligaxkan jokatu partidan, Azkoitiak irabazi zuen. "Ongi eginez gero lortuko genuela argi genuen" aipatu digu Artetxek eta horrela izan zen.

## Errenta mantendu

Finalaren hasierako minutuak borrokatuak izan ziren. Baina 5-4aren ostean Intzako bikoteak aurre hartu eta 12-4 jarri zen.

Nahiz eta Azkoitiako Unanue eta Iparragirrek tartea murriztu, 15-10, Artetxe eta Elolak ederki mantendu zuten errenta partida amaiera arte.

Era honetara, garaipena eta 2. mailako txapela eta ikurra eskuratu zuten. Sari hauetak

## DARDOAK.-

## Hungariarako txartela poltsikoan

## Daniel Oliver eta Jorge Cid herritarrek Espainiako txapeldun

Lasarte-Oriak ordezkari izango du datorren udako Europako txapelketan. Hungariara joango dira uztaila edo abuztuan, aldaketarik ezean. Orain dela bi asteburu sailkatu ziren, 'Dardoka' taldearekin Espainiako txapelketa irabazi ostean, taldeka, 501 modalitatean. Also eta Mendi Cafe Rock tabernetan aritzen dira jokatzeko urtean zehar.

## IÑIGO GONZALEZ

Datorren udan Hungarian jokatu den Europako txapelketan bi jokalaririk lasarteoriatar ariko dira: Daniel Oliver eta Jorge Cid. Oropesan (Valentzia) izan ziren orain dela bi asteburu, Gipuzkoatik joandako jokalariek-espazioaren parte izanik. Beste 13 herritarrek ere hartu zuten parte txapelketan.

'Dardoka' izeneko taldean aritu ziren Cid eta Oliver. Bost kidek osatu zuten denera taldea: Ivan Martinez, Joseba Unanue, Asier Alonso eta bi herritarrek. Urrietako elkartea bat da Dardoka, Gipuzkoako zaharrena: Abenduaren 19an 10 urte beteiko ditu. Aitzakia horrekin, talde propioa eramatea erabaki zuen. Apustua ezin zitzaizkion hobeto atera, arestian aipatutako kideek taldekako txapelketa irabazi baitzuten. 2.000 jokalaririk inguruk hartu zuten parte denera txapelketa horretako modalitateetan.

Taldekakoan, horietako bakoitzak bi 'bizitza' ditu. Dar-



Daniel Oliver eta Jorge Cid (ezkeretik hasita 3. eta 4.a), taldekideekin batera Oropesan.

dokako kideek ez zuten bakar bat ere galdu finalera iritsi arte. Erronda erabakigarrian kantabriar batzuk izan zituzten aurrez aurre. Azken horiek hasi ziren irabazten, gipuzkoarrei bizi bat kenduz, baina egoerari buelta eman eta kantabriarrei bi bizitza kentzea lortu zuten.

"Bikaina izan zen esperientzia, hainbeste gipuzkoar podiumetan ikustea; Hungariako txapelketaz gozatu nahi dugu eta maila ona eman", adierazi dute herritarrek.

## Zaletasun handia Gipuzkoan

Dardoetan jokatzeko zaletasuna gero eta gehiago ari da hedatzen. Txoko guztietara ari da iristen; Gipuzkoan errotua dago jada.

Alor hori lotutako hainbat enpresa daude; Connection Darts izenekoak da bat. Erakunde horren Gipuzkoako ordezkaria da Joseba Unanue oriotarra; Espainiako txapelketa irabazi zuen taldeko kideetako bat ere bai.

Probintziako herri guztietan zehar ibiltzen da, interesa duten tabernetan harremanetan jarri

eta euren egitasmoa azaltzera. Dardo-makinak instalatzen dituzte, besteak beste. Hainbat taberna dira erakunde horretako kide, Lasarte-Oriako hiru tartean: Also, Buenetxea eta Mendi Cafe Rock.

"Uneotan Lasarte-Oria da dardo jokalaririk gehien dituen herria", dio Unanuek. Mendi Cafe Rock tabernan 50 inguru aritzen dira, dozena bat Alson eta sei Buenetxean. Horien artean, Jorge Cid eta Daniel Oliver. Mendin eta Alson aritzen dira gehienbat.

Duela bi urte egin zen Also enpresako kide; sei hilabete daramatza Mendi Cafe Rock tabernan, eta Buenetxearekin ere berriki elkartu da. Unanuek dioenez, "tabernek eskatutakoak baino makina gutxiago" ditu eskura, probintzia osoan zaletasuna hedatzen ari denaren seinale.

Hitzordu paregabea edukiko dute jokalaririk eta ikusleek urtarileko hirugarren asteburuan, urtarrilaren 16an eta 17an, Gipuzkoa mailako bikoteak txapelketa bat antolatuko baita herrian.



Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola Intzako pilotariak txapel eta garaikurrarekin. INTZA



## Agenda

Ostirala, 19:30ean, Ama Brigitarren komentuan



### Organoaren mendeurrena

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen XI. Musika topaketen barruan, Brigitarren komentuko organoaren mendeurrena ospatzeko kontzertua egingo da. Haizea Muñoz sopranoak eta Ana Belen Garcia organistak ahots eta organorako egitaraua prestatu dute. Doinu klasikoak eta euskal doinuak izango dira nagusi. Hala nola, Aita Donostiaren "Oinazez", Bachen "Bist du bei mir" edo Haendelen Rinaldo operaren "Lascia ch'io pianga". Organoa bakarrik entzuteko aukera ere izango da

### Andoain

#### Musika

BASTERO KULTURGUNEA  
Asteartea, 18:00etan  
Musika eskolako ikasleen entzunaldiaz gozatu ahalko da.

#### Dantza

BASTERO KULTURGUNEA  
Ostirala, 21:30ean  
Down sindromea duten gazteek osatutako Verdini dantza taldeak "Verdini metodoa" lana eskainiko du. Sarrera 10 euro.



### Lasarte-Oria

#### Musika

ATSOBAKAR EGOITZA  
Astelehena, 17:30ean  
Musika Eskolako Trikitilariak Atsobakarren emanalditxo bat eskainiko dute.

#### Zinea

MANUEL LEKUONA  
Ostirala, 22:00etan  
Okendo Zinema Taldearen zine forum atalean "Un dia perfecto" filma ikusgai izango da. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA

Larunbata 12, 20:00etan  
James Bond espioiaren film berria "Spec-

tre" eskainiko da. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea 13, 17:00etan  
"Marko Makako" animaziozko filma ikusgai izango da haurren zinema atalean. Sarrera 3,80 euro. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA

Igandea 13, 19:30ean  
Larunbatean zinemara hurbildu ezin diren herritarrek, "Spectre" ikusteko aukera berria izango dute. Sarrera 5,50 euro.

#### Antzerkia

MANUEL LEKUONA  
Ostirala 11, 20:00etan  
Lauka teatro taldeak "Amodioaren

ziega" lana eskainiko du. Kukuka antzerki eta dantza eskolak Udalaren laguntzaz antzerki amateurra sustatzeko ekimena.



#### Erakusketa

ANTONIO MERCERO GUNEA  
Abenduaren 3tik 18ra, 17:30etik 19:30era.  
Jalgune elkartearen "Elkar sentitu eta emozioak handitu!" erakusketa ikusgai izango da. Urritasuna duten pertsonen nazioarteko egunaren harira.

### Usurbil

#### Antzerkia

ELIZA ZARREAN  
Asteartea, 18:00etan  
"Ondoko hilobiko tipoa" lana eskainiko du Txalo produkzioak. Sarrera 5 euro. Antxomolantxa elkarteak antolatua.

### Urnieta

#### Erakusketa

LEKAIK KULTUR ETXEA  
Abenduaren 11era arte  
Javi Larrauriren "Kaleak gureganatuko ditugu" argazki erakusketa ikusgai dago.

## Herritarren txokoa

#### Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, gaur, azaroaren 30a, odola eman ahal izango da Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.  
Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

#### Greziar irletara bidia

Greziar irletara kruzeroa astebete zerbizu guztiak barne.  
Irailak 12an irteera eta irailak 19 an buelta. Lasarte-Oriatik autobuses Loiuako aireportura eta bertan hegazkinez.  
Informazio gehiago 943 373 613, edo Hipodromo etorbidea 10era hurbilduz. Orduetgia, 09:30etik 16:30era.

#### Lasartearra elkarteko loteria

Lasartearra elkarteak jakinarazi du aurtengo gabonetako loteria, 57.898 zenbakia, bazkideen eskura dagoela.

#### Alboka Abesbatza

Alboka Abesbatza 2015-1016 ikasturtean dituen ekimenei aurre egiteko

lanean ari da dagoeneko. Hala ere, 15-55 urte bitarteko herritarrak animatu nahi ditu abesbatzera gerturatu eta parte hartzera.

Astelehen eta ostegun guztietan 20:00etatik 21:30era entsaiatzen du abesbatzak Arantzazuko Amaren Eliza azpiko lokalean, Zumaburun.  
Informazio gehiago jasotzeko idatzi [info@albokaabesbatza.com](mailto:info@albokaabesbatza.com)-era.

#### Eskutitza

### Giza Eskubideak bete daitezten

Norbaitek esan zuen eskubideak okerbidea zuzentzeko asmatuak izan zirela eta ordutik, ondotxo dakigu zuzentzeak lan ugari, esku asko eta buru zein adore nekagaitzak behar dituela.

Ez dakigu nor izan zen, baina horrelako ahaleginetan gaude gu ere, kasu honetan, egun seinatu baterako deia eginez euskal preso politikoaren giza eskubideen alde. Izan ere, abenduaren 10ean Nazioarteko Giza Eskubideen Eguna dugu eta Lasarte-Oriatarrok baditugu motiboak giza eskubideen aldarrikapena zabaltzeko, hauek urratuak baitira gure herriko preso, senide eta hainbat lagunekin.

Oraingoan, bere larritasunagatik, aipamen berezia egin nahi diogu larriki gaixo dauden presoekin. Hau dela eta, gure herrian, Ibon Fernandez Iradi esklerosi anizkoitza duen preso politikoa lasartearraren askapena eskatuko dugu, gainontzeko preso larri gaixoen herrietan eskatuko duten bezala. Ekimen ezberdinez, baina zentzu berarekin.

Horregatik, Lasarte-Oriako Saretik burutuko dugun giza katean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu:

-Noiz: abenduaren 10ean, arratsaldeko 20:00etan

-Non: Anbulategiko sarreran.

Giza Eskubideak guztiontzat orain!  
IBON eta larriki gaixo dauden gainontzeko presoak ASKATU!

Lasarte-Oriako Sare

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)





Jalguneko lagunek trebeak direla erakutsi zuten eta gonbita ederra egin zuten emanaldi amaieran: 'Ez utzi sentitzeari!'

## Emozioz betetako jaialdia

Abenduaren 3tik 18ra erakusketa antolatu dute

**Abenduaren 3a, Euskararen eguna izateaz gain, urritasuna duten pertsonen nazioarteko eguna ere bada. Egun honen berri herriari jakitera emateko Jalgune elkarteak gazte, senide eta begiraleek larunbatean jaialdi koloretsu eta alaia eskaini zuten. Artista batzuk direla erakutsi zuten guztiek.**

Umorea eta batez ere, emozioak izan ziren nagusi Jalgune elkarteak larunbatean eskainitako jaialdian.

Jalguneko gazte, begirale eta gurasek Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren herritarren emozioak, barre, algarak eta txaloak batez ere, eragin zituzten.

Marrakzi bizidunetako pertsonaiak, magia ikuskizunak, antzerkia, musika eta dantza nahastu zituzten emanaldian. Esate baterako, Jalguneko gazteek haien dohainak erakutsi zituzten Semblante Rociero koruaren doinuak dantzatzuz. Gainera, Gitanillas del Alba taldearen laguntza ere izan zuten.

Era berean, iazko jaialditik

hona egin dituzten ekintzen bideoak ere izan ziren ikusgai. Horien artean aipagarria da aurtengo Korrikan Katxiporretako lagunen izenean eraman zuten testiguaren bideoa.

Ikuskizunaren aurretik ere ikusleek jai giroan sartzeko aukera izan zuten Oaintxe in deu! txarangaren eskutik. Hauek Jalguneko lagunekin batera harrera beroa egin zieten ikusleei.

### Elkar sentitu

Baina ez da hau abenduaren 3a, urritasuna duten pertsonen nazioarteko eguna ospatzeko egingo duten ekintza bakarra izango.

Abenduaren 3tik 18ra argazki "Elkar sentitu eta emozioak handitu" erakuske-

ta antolatu dute Antonio Mercero erakusketa gelan.

Bertan Jalguneko gazteen argazkiak izango dira. Hauek ikusi nahi dituzten herritarrek asteleheneetik larunbatera 17:30etik 19:30era hurbildu beharko dira aretora.

Halabaina, Jalguneko lagunek jakinarazi dutenez, abenduaren 5 eta 8 artean eta abenduaren 13an igandea itxia egongo da erakusketa.

### Dravet sindromea

Hau guztiaz gain, elkarteak kideek Dravet sindromea duten haurrekiko elkartasuna adierazi nahi dute eta horretarako erabiliko boligrafoak, errotulagailuak, barrako pegamentua, portaminasak edota fluoreszenzateak jasoko dituzte erakusketan. Jasotako materialak sindromearen ikerkuntza aurrera eramateko funtsak lortzen lagunduko du.

Jalguneko kideek erakusketara hurbiltzeko gonbita egiten diete herritarrei eta Dravet sindromea iker dadin haien harritxoak jar dezaten ere eskatzen die.



'Erase una vez el cuerpo humano'-ko protagonistak edo magoak izan ziren oholtzan.



Korrika egunean beroketak ederki egin zituztela ikusi ahal izan zen bideoetako batean.



Korueta kideak Ablitasen. Errigorako bountarioei kantari.

XUMELA

## Xumela Errigorarekin bat

Joan den asteburuan, azaroaren 21ean, Lasarte-Oriako Xumela koruko lagunak Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olagarro koruetako kideekin batera Nafarroako Erriberan izan ziren. Bertan Errigora egitasmoan bere harritxoak eta ahotsa jarri zuten.

Berehundurik gora boluntariok Erriberako nekazarien produktuekin osatutako 12.500 saski osatzen jardun ziren. Bitartean, 110 kanta-

riak, tartean Xumela korua, Ablitas herrian hauen lana kantuekin girotu zuten.

Ostean, Cascantera hurbildu ziren olio errota bisitatze- ra. Denok batera bapo bazkaldu ondoren Tuterara abiatu ziren eta arratsaldean bertako kaleetan zehar kantu jira eginez.

Xumelako lagunek jakitera eman dutenez, koruko kideez gain Lasarte-Oriako hainbat biztanle aritu zen otarrak osatzeko lanetan.

### Banaketa

Aste honetan zehar banatuko dira herrietan saskiak. Lasarte-Orian bertako herritarrek eskatutako 150 otar izango dira.

Kanpaina honen bidez lortutakoekin orotara 157.000 euro bideratuko dira Nafarroako hegoaldeko euskara bultzatzeko. Erriberako Ikastolak, AEK, D ereduaren aldeko lana eta euskal kultura izango dira oro har onuradunak.